

## **JASANGARRITASUNARI BURUZKO GRADU AMAIERAKO LANIK ONENARI SARIA 2021-22**

Ondorengo hiru gaitik bi gutxienez ondoen biltzen dituen Gradu Amaierako Lanari emango zaie saria: ekonomia, gizartea eta ingurugiroa.

### **BALDINTZAK:**

- Gradu Amaierako Lana Ekonomia eta Enpresa Fakultatean defendatzea eta, gutxien dela, 7 kalifikazioa lortu izana 2021-2022 kurtso akademikoan
- Sarirako eskaria egitea.
- Saria jasotzera bertaratzea.

### **SARIRA AURKEZTEKO PROZEDURA:**

Honako hiru agiriak bidali behar dira pdf formatuan, posta elektronikoz ([ivan.iturricastillo@ehu.eus](mailto:ivan.iturricastillo@ehu.eus)), Ekonomia eta Enpresa Fakultateko Gasteizko Ataleko GRAL-aren Koordinatzailea.

- Eskari orria behar bezala beteta
- GRALa, baina epaimahaiak egilea nor den jakin gabe har dezan erabakia, datu hauek ezabatu behar dira:
  - ikaslearen datuak
  - GRALaren zuzendariaren edo tutorearen datuak
  - fakultatearen zein ataletan egin den defentsa
- 2-4 orrialdeko laburpena azalduz GRALak jasangarritasunaren arloari egiten dion ekarpena. Hau ere anonimoa.

Gasteizeko Ataleko GRAL-aren Koordinatzaileak eskaera mezuari erantzungo dio (posta elektronikoz) urtarrilaren 24tik aurrera, dokumentuak hartu egin direla jakinarazteko, eta, era berean, mezu hori izango da sarirako eskaria egin izanaren froga agiria.

Urtarrileko 25eko eguerdian oraindik ez bada mezu hori jaso, mesedez, eskariaren mezua berbidali, berandu jota urtarrilaren 26an.

OHARRA: Eskaria epe barruan bidali zela egiaztatzeko, mesedez, ez bidali mezu berri bat, ostera berbidali jatorrizko mezua.

### **Eskariak aurkezteko epea**

**2023ko urtarrileko 12tik urtarrilaren 23rarte** (biak barne).

## EBALUAZIOA:

- Ez da aukerarik egongo hartutako erabakien kontra alegaziorik egiteko, eta ezin izango da erabakien inguruko txostenik eskatu.
- Jasangarritasun Epaimahaiak saria eman gabe utz dezake, haren ustez lanek ez badute kalitate nahikorik.
- Kontuan hartuko dira gutxien dela hiru gaietako bi (ekonomia, gizarte eta ingurugiroa) biltzen dituzten lanak, atal hauetan garatuak:
  1. Aipamena
  2. Ezbaida
  3. Garapena:
    - Gai bakoitza bere aldetik
    - Bi edo hiru gai baterabilduta

## SARIA EMATEA:

Ikasleari diploma bat eta saria emango zaio Arabako Ataleko ikasleen Graduazio Ekitaldian.

Ikasle saritua ez bada ekitaldira bertaratzen saria jasotzera, saria eman gabe geratuko da, sari honetarako ezarritako baldintzetako bat urratuko bailuke.

Horrelakoetan, aldez aurretik eta denbora nahikoaz jakinez gero, epaimahaiak saria beste ikasle bati ematea erabaki dezake, edo saria eman gabe geratu behar den.

Kurtso honetan, diploma banaketaren ekitaldia udaberrian izango da, eta saritua deituta izango da, baina, Arabako Atalekoa bada, ez zaio esango bera izan dela saritua.